




.eus Abiarazte-planaren laburpena

Launch Phase

Applications for the 6 Categories will be submitted simultaneously. Registrations will be allocated at the end of this 64-day Launch Phase (71 days for the Public Interest LRP) according to their priority status.





Sarrera: Euskal Hizkuntzarekiko eta Kulturarekiko lotura

.eus lehen mailako erregistro guztiak (zein unetan erregistratu ziren kontuan izan gabe) euskal hizkuntza- eta kultura-komunitateko onusteko kideei mugatuta daude. Komunitate hori honako hauek osatzen dute: online komunikazioetarako euskara erabiltzen (edo erabiltzeko konpromisoa hartzen) dutenek, euskal kulturaren aspektuak online sustatzen dituztenek, edota sareko komunikazioak eta zerbitzuak komunitate horri zehazki zuzendu nahi dizkietenek. «Eus» «Euskara» hitzaren laburpena da, eta «euskal hizkuntzari» dagokio, hain zuzen ere.

Zehazki, erregistratutako domeinu-izenaren erregistrantearen erabilera honelakoa izan behar da:

- (i) oro har, legezkoztat jotakoa; eta
- (ii) euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatearen kausarentzako eta baloreentzako onuragarriak;
- (iii) erregistratutako domeinu-izenaren rolaekin eta garrantziarekin bat; eta
- (iv) fede onekoa erregistratzerakoan eta aurrerantzean.

Abiarazi aurreko fasea: Izen Programa Aitzindaria (KPPren eranskinaren baldintzei jarraiki)

Abiarazi aurreko fasean, Erregistro Operadoreak Programa Aitzindaria gauzatzeko asmoa dauka (ICANNen onarpenaren mende), .eus lehen mailako domeinua sustatzeko. Erregistro Operadorearen asmoa programa honetan, gehienez, laurogeita hamar (90) izen hautatzea eta horien erregistroa baimentzea da («**Izen Aitzindariak**»). Erregistro Operadoreak hautatuko ditu aipatutako Izen Aitzindariak jasotako interes-adierazpen hautagarrien artean, ikusgarritasunaren, ospearen, eta .eus LMD sustatzeko konpromisoaren irizpideak oinarri hartuta.

Abiarazte-aldia

.eus LMDaren Abiarazte-aldia irailaren 16an hasiko da (13:00 UTC) eta azaroaren 18an (13:00 UTC) amaituko, Interes Publikoko Erregistro Aldi Mugatuaren (EAM) kasuan izan ezik; azken hori azaroaren 25ean amaituko da (13:00 UTC), froga-aldiak jarraituta, abenduaren 3an Eskuragarritasun Orokorreko aldia hasi aurretik. Hala, 64 egun naturaleko



aldi horretan (71 egun Interes Publikoko EAMrako), sei eskaera-mota edo «kategoria» onartuko dira: bost kategoria aurretiazko eskubideak dituzten erregistranteentzat, eta beste bat aurretiazko eskubiderik ez dutenentzat (Erregistro librea). Sei kategorietarako eskaerak aldi berean onartuko dira eta abiarazte-aldi horren epearen amaieran esleituko, kategoria bakoitzaren lehentasun-estatusaren hierarkiaren arabera, betiere, komunitatearekiko lotura behar izanda.

Kategoria bakoitza erabat esleituko da (hau da, onartu, baztertu edo eztabaidaren ebazpenera bidaliko da), hurrengo kategoriako beste edozer izen esleitu aurretik. Erregistro Operadoreak banaka eta sakonki balioztatuko du lehentasun-kexa bakoitza. Norberaren adierazpena ez da nahikoa izango.

Kategoriak honako hauek dira, lehentasun estatusaren arabera (lehentasun handienetik txikienera):

- **1. Lehentasuneko Kategoria: TMCH Sunrise aldia: TMCHk balioztatutako marketarako** Sunrisearen itxiera-data.
- **2. Lehentasuneko Kategoria: TMChren Babes Erregistroak:** .eus komunitatean oinarritutako erregistro-politikak betetzen ez dituzten TMCHk balioztatutako eskaerek Babes Erregistroa hauta dezakete. Babes-erregistroak hirugarren eskatzaile potentzialak lehentasun txikienerako faseetan domeinu-izena erregistratzeko aukera blokeatuko du. Babes-erregistroek ez dute domeinua DNSan aktibatzea onartuko.
- **3. Lehentasuneko Kategoria: Euskal hizkuntza edota kultura sustatzeko bokazio zehatza duten eskatzaileak:** Erregistro Aldi Mugatuaren helburua euskal hizkuntza edota kultura sustatzeko bokazio zehatza duten erakunde legalei zein gizabanakoei, bai eta euskara hizkuntza autoktonoa den eremuetan eskumenak dituzten Herri Administrazioei ere, honako hauek erregistratzen uztea da: (i) euren **izenak** (horren aldaketa argiak edota laburpenak barne), (ii) euren **online zerbitzuak**, (iii) haiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako **domeinu-izenak**, eta (iv) euren **marka erregistratuak**.
- **4. Lehentasuneko Kategoria: Tokiko Marken Erregistro Aldi Mugatua:** Euskara hizkuntza autoktonoa den eremuetan eragiten duten TMCHk balioztatu ez dituen marketarako Erregistro Aldi Mugatua (hala nola, Espainiako, Frantziako, EBko eta Espainian edota Frantzian eragiten duten WIPO Nazioarteko markak) eta (ii)



Nazioarteko, Europar Batasuneko, Espainiako, Frantziako edota Euskadiko legeriak aitortutako adierazpen geografikoak.

- **5. Lehentasuneko Kategoria: Aurretiazko lineako erabileraren Erregistro Aldi Mugatua:** Erregistro Aldi Mugatu horren helburua aurretik euskarazko lineako komunikazioa gauzatu izana frogatzen duten erakunde legalei (adib.: webgunearen, posta-zerrendaren, blogaren eta bestelakoen bidez) honako hauek erregistratzen uztea da: (i) euren **izen** ofizialak (horien aldaketa argiak edota laburpenak barne); eta (ii) horiek beste LMDtan erregistratutako eta modu eraginkorrean erabilitako **domeinu-izen** berak.
- **Erregistro librea:** Lehentasun-eskubiderik gabeko erregistranteentzat.

Erreklamazio Zerbitzuak eskainiko dira Plazaratze Fasearen lehen egunetik (aldibereko 6 Plazaratze Kategorien lehen eguna) Erregistro Orokorren hasieratik 90 egunera arte, gutxienez; hau da, 2014ko irailaren 16tik 2015eko martxoaren 3ra arte.